

## Herriko txikienak, plisti-plasta

Haur Igeriketaren XVII. Bilera egin dute ▶ 11



# Onddoa jaitsiz hasi dituzte Santioak billabonatarrek

**HASIERA** ▶ Gazte asanbladakoek irakurri zuten pregoia txupinazoa eta urezko puxikak jaurti aurretik

**BUKAERA** ▶ Hilaren 31n bukatuko dira Santio jaiak; hamaika ekintza izango dira herrian ordura arte ▶ 6-10



Txanpainarekin elkarri bustitzen aritu ziren atzo goizean billabonatarrek Onddo gazte asanbladakoek txupinazoa jaurti eta gero. OLAINA ESKITZABEL

**TOLOSALDEA** ▶

## Eskualdetik pasatzen zen Done Jakue bideetako bat

Markatu eta sustatu egin nahi du orain Eusko Jaurlaritzak ▶ 4

**IDOIA BARANDIARAN** ▶ ANTZEZLEA



JOXEMI SAIZAR

«3 eta 8 urte arteko umeen jarrera bera da edonon»

Telebistan eta plazan lan egitea ezberdina dela irizten dio ▶ 2-3

**TOLOSALDEA** ▶

## Olinpiar Jokoetako kirolariak ▶ 5

**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**  
Ikastolaren eskaintza

- Irakatsi
- Hezi
- Pertsona osatu

*Ikastolak festa alaiak igaro ditzazuen opa dizue guztie! Gora Santioak!*

Errementari kalea z/g  
**TOLOSA**  
Tel.: 943 67 16 30

**NEREA 1962 LENTZERIA**

**EMAKUME MODA**

Trikiniak eta Bainujantziak %20-ko **BEHERAPENAREKIN**  
Pijamak, kamisoiak eta hondartzarako kamisolak %20 eta %30 -eko **BEHERAPENAREKIN**

**MUSTURINEA**

**HAKATEGIA**

**Festa zoriontsuak pasa!**  
Nagusia, 14 • Villabona • Tel.: 943 69 68 01



UZTURRETIK ▶  
JOXAN ORMAZABAL

## Mundua konpontzen

**M**unduari eta geure inguruari begirada bat botatzea aski da gizakion miseriak ikusteko: injustiziak, pobrezia, gerra, esplotazioa... Batzuk diruz gainezka eta beste batzuk ahora zer eramanik ez dutela. Gogoratzen naiz nola ari ginen behin lagun batzuk gai horri buruz hizketan, mundua konpontzen, alegia. Eta batek esan zuen:

—Ez genuke horrelako arazorik izango munduan, Marxek esaten zuena egingo bagenu: bakoitzak gizarteari ahal duena eman eta gizartetik behar duena jaso, baina behar duena bakarrik, e. Diru beharrik ere ez legoke orduan. Adibidez, goizero herriko plazan barazkiak, ogia, fruta jantziak etab. egongo lirarteke. Eta bakoitzak behar duena bakarrik jasoko luke. Etxeak ere beharren arabera egingo lirarteke, ez inork dirua irabazteko. Ez litzateke aberatsik eta pobrerik izango. Kartzelarik ere ez. Ez goserik, ez gerrarik. Bakoitzak ahal duena egin eta behar duena jaso.

Eta orduan galdetu zion gutako batek:

—Aizu, eta zer egin batere lanik egin nahi ez dutenekin, alferrekin eta aprobetxategiekin, alegia?

Gure artean bazen 80 bat urte inguruko gizon bat, eta honela erantzun zion txapelaren azpitik buruari hatz eginez:

—Nik badaukat erremedioa lanik egin nahi ez duten horientzat. Piszina bat behar da horretarako. Eta han sartu behar dira lanik egin nahi ez dutenak, eta zutik egon behar dute kokotserainoko uretan. Ura gora doa poliki-poliki, eta ontzi bat ematen zaio bakoitzari eskura. Ito nahi ez badute ura kanpora bota behar dute etengabe. Eta hori lan nekagarria da luzaroan aritzeko. Zer esan-gogor dute orduan denek aho-batez? Ba, askoz nahiago dutela piszinatik irten eta dagoen lanean aritzea. Eta orduan, bakoitzak bere lanari helduko lioke tokatzen zaion lekuan.

Badakizue, ba, hemendik aurrera egin dezala bakoitzak ahal duena eta jaso dezala behar duena, piszinara joan gabe.



## Bigarren erraustegia ez dute azkenean Villabonan jarriko

**ASTEKO GAIA** ▶ Gipuzkoako bigarren erraustegia Donostian, Loistegiko gainan, Aritzeta inguruan jarriko dute azkenean. Joan den astelehenean egin zuten Jarraipen Batzordekoek errauste plantaren kokalekua erabakitze bileran, eta jomugan zeuden bederatzik lekuetatik Gipuzkoako hiriburua hautatu zuten: 10 boto jaso zituen aukera horrek, 2 Villabonan eta 1 Urnietan. Errausketa plantaren inguruan afera handia izan da azkenaldian, eta eskualdean ere hainbat protesta ekintza egin dituzte —batik bat Villabonan; argazkian— erraustegiaren kontra. AuBk eta

Aralarrek Donostian deitutako manifestazio jendetsura deitu zuten, eta EHNE sindikatuak zioen eztabaidako gaia ez dela non jarri behar duten erraustegia; hondakinak nola tratatu behar diren, baizik. Euskal Herri osoko 500 sendagile bat etorri dira, bestalde, erraustegiak osasun arazoak ekarriko dituela esatean. Gipuzkoako errauste planten inguruko afera luzerako izango dela dirudi, besteak beste, herri plataformek «eztabaida faltsuak eta interesak edukitzea» egozten dielako hainbat alderdi politikori. GARAZI AZKUE

IDOIA BARANDIARAN ▶ ANTZEZLEA

# «Herriko plazan aritzea desberdina da; lan guztia zuk egin behar duzu»

«Hiru antzezan ditugu, bi helduentzako eta azkenekoa, pailazoena, umeentzako; azken honetan umeak entretenitzea dugu helburu», dio Idoia Barandiaranek

IÑIGO ASENSIO - JOXEMI SAIZAR

Idoia Barandiaran *Denbora* antzerki taldeko kidea da. 24 urte ditu zizurkildar honek, eta magisteritza ikasten ari da. Donostiako Arte Eszeniko Tailerarean ikasi ondoren, Txirri Mirri eta Txirribitonon ikuskizunean ere ari da lanean. Villabonako taberna batean elkartu eta bere helburuez mintzatu zen HITZAREKIN.

**Zeintzuk izan ziren zuen taldearen lehen pausoak?**

Taldea Zizurkilen sortu genuen, eta antzezan batzuk egiten hasi ginen. Taldekide batek antzezan bat idatzi zuen, eta gerora beste bat. Lanean ari ginen, eta egoera horretan izen bat jarri beharko geniola pen-

tsatu genuen; Denbora antzerki taldea izendatu genuen, azkenean. Momentu honetan lau kidek osatzen dugu.

**Momentu honetan?**

Bai, antzerki taldearen osakera ez da beti berdina. Kide batzuk finkoak gara, baina beste batzuk aldatzen doaz antzezanaren arabera. Orain, lau neska ari gara lanean.

**Zenbat denbora daramazue antzerki taldearekin?**

Ez dakit ziur, baina bost urte inguru izango dira sortu zenetik. **Nola ezagutu zenuten elkar?** Denak Zizurkilgoak gara. Batzuk antzerkia ikasten ari ginen, lagun batek antzezan bat idatzi zuen eta horrek animatu gintuen lanean hastera. Lehen lan hau herrian aurkeztu ge-

nuen. Aurrerago beste lan bat idatzi zuen eta berriz ere lanean jarri ginen. Hura Donostiako gazte lehiaketa batean aurkeztu genuen eta taldekide batek aktore onenaren saria jaso zuen.

**Eta orain, zertan ari zarete?**

Orain pailazo saio bat aurkeztu ari gara. Horrez gain, ipuin kontaketa ere egiten ditugu. **Beraz, zenbat muntaia dituzue orain arte eginak?** Guztira hiru muntaia egin ditugu. Lehen biak helduentzako lanak dira, *Armario Urdina* eta *Esanahia*. Amets baten inguruko historia kontatzen dugu eta protagonista amaieran jabetzen da benetako egoeraz.

**Eta pailazoena?**

Pailazo lanetako trama tipikoa

da: *Gaixotzea ez da txantxa*. Hiru pailazo daude eta hauetik bi tontoak dira eta bestea azkarra. Beraien artean ziria sartzen aritzen dira. Umeak entretenitzea dugu helburu.

**Zenbat aurkezpen egin dituzue azken lan honekin?**

Ba guztira hamar bat izango dira. Hasi ginenean ez genuen honelako arrakasta espero.

**Zer ingurutan mugitzen zarete?**

Batez ere inguruko herrietan egin ditugu aurkezpenak. Zizurkilen bertan, Anoetan, Iruan, Adunan, Zumaian, Astearan, Zarautzen... Urrian Zestonan izango gara.

**Zaila al da kontratazio lana?**

Orain arte ez gara gehiegi mugitu, ez baikenuen muntaia guztia mugitzea aukera. Horregatik, eszenatokiaren arabera muntaia egokitu behar dugu; ez dugu beti nahi duguna egiteko aukera. Adibidez, lehen aipatu dudana.

**Muntaia lanetarako laguntailerik izango duzue, ezta?**

Ez, guk egin behar dugu guztia. Gu geu gara gidoiari, zuzendari, makillatzaile eta behar den guztia.

**Denbora ere beharko duzue guztia prestatzen...**

Bai; gainera, bakoitzak bere lana dauka, ezin dugu guztia litzai gukeen denbora guztia antzezanak prestatzen pasatu.



**IKER KARRERA**  
TOLOMENDIKO ARDURADUNA

«Bioaniztasuna eta oreka naturala ondoen errespetatzen dituen ekoizpena nekazaritza ekologikokoa da»



**GORKA ETXEBERRIA**  
TOLOSAKO ENTRENATZAILE OHIA

«Ametsa da, egia esan, gertatzen ari zaidana; nola egingo diot, bada, uko?»

**IRITZIA ▶ JOSU IZTUETA (BIDAIARIA)**

## Oporrak: nekatuta joan eta porru eginda etorri

**U**rtean zehar asteburuek balio izaten dute asteko lan egunei etena emateko. Proporzio berean baliatzen ditugu oporrak bizitzan atseden luzexagoak hartzeko. Etena eman, atseden hartu... baina benetan deskantsatzen da asteburueta eta oporretan?

Norberak erantzun beharko lioke galderari eta askok aitortuko lukete ezetz, ez dutela deskantsatu, ostiralean baino nekatuago daudela astelehen goizean; uztaila amaieran baino okerrago iraila hasieran.

Euskal Herriko hainbat tokitan lanari 'beharra' ere deitzen zaio eta obligazio hori etetik edo aktibitatearen aldaketatik lortuko genuke onura, nahiz eta lanera bueltatzera-koan porru eginda etorri. Gehien-goaren egoerari erreparatuz hitz egiten dugu eta horrexegatik ari naiz asteburuak eta abuztua libre dituztenei buruz idazten. Gehiengo horrek normal antzera funtziona-

dezan gutxiengo batek gauetan ez du lorik egiten; beste jende multzo batek asteburueta ez du jairik izaten eta beste batzuk abuztuan ez dute oporrik hartzen. Irakurleen artean denetarik egongo zarete eta behin bereizketak egiten hasita egokia litzateke: kaletarrak eta baserritarrak, 'baserrian' bizi direnak edo 'baserritik' bizimodua ateratzen dutenak, nagusi edo administrazioarentzat lanean edo norbere kontura ari direnak bereiztea.

Joxemik [Joxemi Saizar, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO ZUZENDARIA] zergatik eskatu ote dit iritzitza artikulua hau? Opor bezperan gaudelako? Abuztu osoan HITZA egunkariak ere bakazioak dituztelako? Besteen oporretatik nire bizimodua egitea lortu dudalako?

Egunotan galdera hau luzatzen dio jende askok elkarri:

- Nora zoazte oporretan?

Oporrak bidaiekin lotzearen ondorio da, ziurrenik, galdera egiteko

modua, norabaitera joatea beharrezkoa eta ia obligazioa balitz bezala.

- Zer egingo duzue oporretan?— galdetzea egokiagoa litzateke eta jasotako erantzunean garbi gertatuko litzateke solaskidearen asmoa.

### Hondartza eta mendia

Hondartza, adibidez, etzanda ego-tearekin irudikatzen dugu eta mendia ibiltzearekin. Aurrenekoa aukeratzen duenari bakarren batek alfer itxura hartuko dio eta bigarren hau hautatzen duenari kirolari traza atzemango. Bata zein bestea norberak erabakitako lekuak izan badira, biak onak; eta halabeharrez edo gogoz kontra aukeratuak izan badira, biak txarrak.

Zaudeten lekuan zaudetela ere (zabiltzaten tokian zabiltzateela ere), abuztu ona igaro eta deskantsauuuuuu!

### PERTSONALKI ▶

▶ Zizurkilera jaioa ▶ 1980ko urtarrilaren 9an ▶ Donostian Arte Eszenikoen Tailerrean ikasi zuen ▶ Magisteritza ari da ikasten, Haur Hezkuntzan ▶ Denbora antzerki taldeko kidea ▶ Txirri, Mirri eta Txiribitonen ikuskizunean ari da lanean.

**Zer deritzozu Txirri, Mirri eta Txiribitonen ikuskizunaz?** Izugarriko meritua dutela iruditzen zait; historikoak dira. **Eta Takolo, Pirritx eta Porrotxenaz?** Hauek ere oso onak dira, oso didaktikoak. **Eta Poxpolo eta Mokolorenaz?** Ez ditut lanean ikusi, ez dakit.

### EMANALDIK

«Orain artean ez gara gehiegi mugitu, ez baikenuen muntaia guztia batetik bestera mugitzeko aukera»



### Antzerkitik bizitzea al duzue helburu?

Beno, taldeko hiru kide antzerkitik bizi gara, nolabait. Taldeko beste bat eta ni Txirri Mirri eta Txiribitonekin gaude, paper ezberdinak egiten. Beste taldekide bat *Kutsidazu bidea Ixabel* entzezlaneanari da. Gutxi gorabehera, bakoitzak bere bidea dauka, baina ez dugu hau utzi nahi, guk sortutakoa baita: gurea.

**Zein da herriko plazan Denborarekin lan egin eta telebistan Txirri Mirri eta Txiribitonekin lan egitearen arteko aldea?**

Telebistan lan egitea oso des-

berdina da. Bertan makillatu egiten zaituzte, mikrofonoa probatu, antzeztu eta bazoaz. Denborarekin, plazara iritsi eta lehengo gauza aldatzeko toki bat aurkitzea izaten da. Lan guztia zerorrek egin behar duzu; beti izaten dira arazoak soinu teknikariek, gauzak ez dabiltzala eta...

**Umeekin lanean aritzean, bala da alderik herri batetik bestera?**

Egia esan ez, umeak ume dira hemen eta edonon. 3 eta 8 urte bitarte dituzte, gu haiengana hurbiltzen saiatzen gara eta orokorrean beraien jarrera berdina izaten da.



J. SAIZAR

DONE JAKUE BIDEA ▶

JOXEMI SAIZAR

Santiago eguna dugu gaur. Eta igandea egokitzenez denez, urte xacobeoa. Makina bat erromes bilduko da gaur Galiziako hiri ospetsuko Obradoiro plazan. Gure eskualdeko norbait, agian. Izan ere, Done Jakue bidea egiteko ohitura ere bada gure artean. Erdi Aroan izan zuen indar berezia bide honek, eta gaur hartan Tolosaldeko errores ugari pasatuko zen, dudarik gabe.

«Done Jakue bidea ez zen bakarra izango Erdi Aroan. Gaur hartan Santiagora iristeko bide asko ziren. Bidaia hainbat asko Tolosaldeko ere pasatuko ziren», dio Guadalupe Larrarte Tolosako udal artxibategiko arduradunak. Gauza bera dio Elena Barrenak Historia de las vías de comunicación de Gipuzkoa liburuan, Manuel Lekuonaren aipamena eginez: «Leku gutzietatik joaten da Santiagora». Hala ere, Santiago apostoluaren aipamenik ez da agertzen inguruan, ermitetan edo bestelakoetan.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zentroko bide hau bultzatzeko eta seinalizatzeko hainbat udalekin bilerak egin dituzte, tartean Tolosako Udaleko ordezkariak. «Bidearen trazaduraren mapa aurkeztu ziguten eta orain hori onartu egin behar du Udalak», dio Larrartek. Udal teknikariek ibilbidea eragozpenik ez diote ikusi. Aurrerago Orbela enpresa arduratuko da seinaleak jartzeko.

#### Historia pixka bat

Duela gutxi Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak ibilaldi txo bat antolatu zuen Tolosan zehar Done Jakue bidea jarraituz. Mikel Garaikoetxea arduratu zen bidean dauden hainbat elementu interesgarri buruzko azalpenak ematen. Historiari buruzko hainbat apunte eman dizkio HIRZARI.

Santiago, Jesukristoren hamabi apostoluetako bat izan zen. 43. urtean lepoa moztu zioten, Judeako Herodes Agrippa I. erregearen aginduz eta horrela lehen santua bihurtu zen. Gorpua Sinaira eraman zuten. Kondairak dioenez, VIII. mendean Espainiara eraman zuten,

# Tolosaldetik Santiagora

Done Jakue bideetako bat gure eskualdetik pasatzen zen; Eusko Jaurlaritzak markatu eta sustatu egin nahi du



HHlko ikasle talde bat Done Jakue bidez azalpenak entzuten. J.SAIZAR

sarrazenoen inbasioaz babesteko. Inork ez zekien non zegoen, Pelayo fraileak 813. urtean gauz «argi eta prodigio batzuk» ikusi eta gorpua erse-pulkroa aurkitu arte. Alfonso II. Kasto erregeak eliza eraiki zuen Santiagoren omenez 816. urtean eta peregrinazioak hasi ziren, santua eta erlikiak ikusiteko, baina batzuetan bekatu erlijiosoen penitentzia gisa edo akats zibilen zigor gisa. Beste batzuetan osasuna lortzeko, promesa bat betetzeko, kuriositatez... joaten ziren.

1000. urtetik aurrera erromesek aldeko bi faktore garrantzitsu izan zituzten: Cluny ordenak sortutako ospitale eta monastegiak eta Alfonso VI.

erregeak emandako babes juridikoa. Horrela masifikatu ziren Europatik etorritako peregrinazioak XI. eta XII. mendeetan.

#### Bidearen krisia eta arrakasta

XIV. eta XV. mendeetan peregrinazioen jaitsiera handia izan zen gerrak zirela eta, baztanga beltza gaixotasunagatik eta Mendebaldeko Zismagatik. XVI. mendean izan ziren errores gutxi, Protestantismoa sortu zelako.

XVII. eta XVIII. mendeetan berrindartu zen bidea, baina XIX. mendean berriro krisian sartu zen, 1879an apostoluen arrastoak aurkitu arte.

1884an Leon XIII. aita santuak arrastoak egiazkoak zirela esan eta erromesaldiak ugaldtu ziren berriro. Gaur egun indar berezia du Done Jakue bideak, erlijio, kultura, turismo eta kirola nahastuz arrakasta horretan. 1987an Europako Kontseiluak Europako Kultur Ibilbidea izendatu zuen.

Bide honen abiapuntuak eta trazaketak ugari izan dira historian zehar. Frantzian lau bide nagusi daude, Orreaga eta Somportetik gurutzatuz muga. Iruñetik pasatu eta Burgosetik (Espainia) barrena Santiagora bideratzen dute. Gipuzkoan Iruñetik sartzen zirenek kostaldea edo barrualdea aukeratzeko zuten. Erromatarren garaitik barruko sarbidea hau zen: Irun, Hondarribia, Oiartzun, Orereta, Pasaia, Donostia, Andoain, Tolosa, Beasain, Segura, Zalduondo, Gasteiz, La Puebla de Arganzon eta Briñas. Orreagatik eta Somportetik datorren Frantziako bidearekin Santo Domingo de la Calzadan elkartzen da Gipuzkoako barrualdeko bide hau.

Tolosa Gipuzkoako bidearen erdialdean dago. Anoetatik sartu eta Alde Zaharra zeharkatzen zuten erromesek. Hemen biltzen da ondare historioko-artistiko interesgarria.

#### ELEMENTUAK ▶

Hauek dira Eusko Jaurlaritzako Ondare zuzendaritzak, Done Jakue bidea zehazterakoan, 2000. urtean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aipatu dituen Tolosaldeko elementu interesgarriak.

- ▶ **Villabona.** Zubimusu zubia. Amasako San Martin de Tours eliza. Amasako Santa Krutz ermita.
- ▶ **Anoeta** Barrundi-barrena gurutzeta.
- ▶ **Tolosa.** Nafarroako zubia. Alde Zaharra.
- ▶ **Albztur.** Ospital zaharra.
- ▶ **Alegia.** Zubi zaharra. Santa Kruzeko gurutzetokia.
- ▶ **Ikaztegieta.** San Lorenzo eliza.

#### PROPOSAMENA ▶

Hau da Tolosan zehar Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatu eta Tolosako Udaleko teknikariek eragozpenik ikusi ez duten Done Jakue bidea:

- Anoetako errepeidea
- Belate ibiltokia
- Korrore kalea
- Triangulo plaza
- Zumalakarregi ibiltokia
- Berazubiko zubia
- Martin J. Iraola etorbidea
- Iruñea etorbidea
- Delta-Panifisa zubia
- Usabal industrialdea
- Altzo aldera jarraitzen du.

## Nork markatu du gezi horia Tolosaldean barrena?

Done Jakue bideaz ari garela, herritarren bat baino gehiago konturatu da Tolosan eta eskualdeko beste herri batzuetan bide hori markatzeko erabiltzen diren bezalako gezi hori ugari daudela. Anoetatik etorrita, Oria ibaiaren ondoko bidetik ikus daitezke. Tolosan berriz, Gorriti plazan, Errementari kalean, Plaza Zaharrean, Zerkausian eta beste hainbat tokitan daude paretetan margotuta, Olarrain aldera jarraituz. Ez dugu jakiterik izan nork markatutako seinaleak

diren. Udaletxean ez dakite ezer. Done Jakue bidea egin duten erromes batzuei galde-tuta, haiek ere ez dakite ezer. Elkarteren batek markatuko ote zuten? Ibilaldi neurtu baterako edo?

Horrelako bide bat markatzeko beste modu duinagoak badaude. Ez da egokia pinturaz margotzea herriko kaleetako paretak. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako bidea onartzen denean, beste modu batek seinalizatuko da Done Jakue bidea gure herrietan. ◀



Gorriti plazan bezala, herri osoan zehar ikus daitezke geziak. J. SAIZAR

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

KIROLA ▶

**ESKUALDEKO OLINPIKOAK ▶**

**ROBERTO CABREJAS**  
ATLETISMO



**Jaioterrria.** Andoain (Tolosa CFn aritu zen).  
**Urtea.** 1980.  
**Lekua.** Moscu.  
**Proba.** Altuera jauzia.

**HARRI GARMENDIA**  
IGERIKETA



**Jaioterrria.** Ordizia (Tolosa CFn aritu zen).  
**Urtea.** 1984.  
**Lekua.** Los Angeles.

**Proba.** 200 m tximeleta.  
**Postua.** Finalista.

**ABRAHAM OLANO**  
TXIRRINDULARITZA



**Jaiotekua.** Anoeta.  
**Urteak.** 1996 eta 2000.  
**Lekuak.** Atlanta eta Sidney.

**Proba.** Erlojupekoa eta errepideak.  
**Postuak.** Bigarrena Atlantan eta laugarrena Sidneyn, bietan erlojupekoetan.

**AINHOA ARTOLAZABAL**  
TXIRRINDULARITZA



**Jaiotekua.** Tolosa.  
**Urtea.** 1992.  
**Lekua.** Bartzelona.

**Proba.** Errepidekoa.  
**Postua.** 20.a.

**HARITZ ZUNZUNEGI**  
FONDOKO ESKIA



**Jaiotekua.** Tolosa.  
**Urteak.** 1998 eta 2002.  
**Lekuak.** Nagano eta Salt Lake City.

**Proba.** 30 km klasiko, 10 km patinatzaile eta 50 km klasiko.

**XABIER FERNANDEZ**  
BELA



**Jaiotekua.** Ibarra.  
**Urtea.** 2004.  
**Lekua.** Atenas.  
**Proba.** 49er modalitatea.



Javier Larraza, Mertxe Ceberio, M. Angeles Amunarriz (Imazen alarguna), Juan Antonio Samaranch COIko lehendakaria eta Armando Roca Moscuako Olinpiar Jokoetan. JOSE MARI IMAZ

# Eskualdekoak Olinpiar Jokoetan

## Kirolari, entrenatzaile, epaile eta ikusle gisa joan izan dira eta joango dira

**JOXEMI SAIZAR**

**A**buztuaren 13tik 29ra izango dira aurtien. Atenasen. Grezia klasikoan sortu ziren lekuan. Lau urtez behingo kirol topagune garrantzitsuena: Olinpiar Jokoak. Tolosaldeko izango da ordezkariak: Xabier Fernandez ibararra belan lehian eta dozena batzuk ikusle gisa. Orain arte egin diren Olinpiar Jokoetan eskualdeko ordezkari ugari izan dira, bai kirolari gisa parte hartzen, bai epaile, entrenatzaile edo ikusle bezala.

Lehen erreferentzia Iguaran anaiena da. Jose Iguaran tolosarra 1924an Parisen eta 1928an Amsterdamen izan zen atletismoko epaile. Ikusle bezala Berlin 36 eta —gerren etenaren ondoren— Londres 48an, Helsink 52an eta Erroma 60an izan zen, azken honetan bere anaiak Andres eta Estebanekin. Nazioarteko epaile gisa Carlos Lumberras tolosarrak hartu zion lekukoa. Bartzelona 92an izan zen epaile.

Kirolarien aldetik seikote bat bildu dugu, jende askori galdetu ondoren —norbait ahaztu bazaigu, barka beza—: Roberto Cabrejas atleta —TCFko kamisetarekin egin zuen beroket-

akuntzak, hainbeste kirolari... Dena izugarria da», dio txirrindulariak Bartzelonan «klausura moje» gisa egon omen ziren: ez desfilatatu, ez beste kirolak ikusi, probarako prestatzen. Australiakoan, ordea, inaugurazioa eta amaiera ikusi eta gozatu egin zuen. Greziara «gustura» joango litzateke, baina telebistatik jarraituz konformatu beharko du.

**Kirolariak, txundituta**

«Sekulako inpresioa egin zidan munduko kirolari guztiak han bilduta ikusteak. Olinpiar Jokoei oihartzun handia dute eta oso desberdinak dira beste edozein kirol topagunerekin konparatuta», dio Abraham Olanok. Beste kirolak ikusteko aukera handirik ez zuen izan anoetarrak entrenatzen ari zirelako. Bere probei buruz, errepidekoan erretiratu egin zen, baina erlojupekoetan aurrean ibili zen: Atlantan bigarren, Indurainen atzetik, eta Sidneyn laugarren.

Artolazabalek ere bi edizio bizitu ditu eta bi paper desberdinekin: Bartzelonan pelotoian eta Sidneyn selekzioko entrenatzaile gisa, Joane Somarribarekin. «Inoiz ez nuen hainbeste argazkilari ikusi batera. Insta-

**Ikusle ugari eskualdetik**

Azken multzoan —eta ez horregatik garrantzi txikiagokoa— eskualdetik Olinpiar Jokotara joan izan diren eta joaten diren ikusleak sartuko ditugu. Lehen erreferentzia Erroma 60koa dugu: Tolosa CFko lehendakaria izan zena eta atletismoaren alde hainbeste lan egin zuen Jose Mari Imaz motoz joan zen Miguel Lekuonarekin batera. Han izan ziren baita ere Xebe Peña eta bere anaiak Jose eta Xabier, Ricardo Mugerza, Edurne Ormazabal, Mirentxu Imaz, Elustondo...

Munich 72an ere koadrila handia bildu zen: Imaz bera —gehiagotan ere izan zen—, Antonio Biurrun, Bautista Urkizar, Javier Carrera, Jose Ramon Gonzalez, Guillermo Lopez... Batez ere atletismoa ikustera joan ziren, baina beste kirol batzuk ere ikusiz.

Moscu 80an ere izan ziren tolosar batzuk. «Orduan hasi ziren Munduko Atletismo Txapelketak eta harrezkero horietako batzuetara ere joan izan gara», dio Javier Larrazak. Aurtien ere joatekoa da Atenasera. Ez da eskualdeko bakarra izango, beste koadrila pare bat —gutxienez— asmo horrekin ari baita, nahiz eta batzuk oraindik ostatuak lortzeko arazoak izan, irailen horretan saiatzen hasi arren.

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 6532112
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Ibarraldea.** Osasun etx: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aitzondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aitzondo zerb: 693930

**GARRAIOAK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**KOMUNIKABIDEAK**

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttpa adl.: 948 631888

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**Gaur.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3 (Tolosa). 943 651040.  
**Bihar.** Morant, R. Zabalaretta, 1 (Tolosa). 943 673849.  
Elbarren, 52 (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aitzondo@tolosaldeko hitza.info  
**AnoetaIdea.** 687 41 00 22  
anoetaIdea@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**LeitzaIdea.** 687 41 01 18.  
leitzaIdea@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**EROSTEKO**

**Etxebizitza.** Etxebizitza erosi nahi da Tolosan. Gutxienez 100 m2 eta igogailuarekin, Inmobiliariek ez deitu. Telefonokoak: 677 00 00 05 edota 943 67 10 20.

TXUPINAZOA ▶

# Onddoa jaitziz hasi dira Santio jaiak

Onddo gazte asanbladak irakurri zuen pregoia; suziriaz gain, urez betetako puxikak jaurti zituzten

OLAIA ESKITXABEL

Jaiak hasteko ordu laurdena falta zenean, ez zen somatzen mugimendu handirik herriko plazan. Plazaren erdian, karpa txiki baten pean, EHNA egiten ari ziren batzuk; gazte taldeko kideak ere ikus zitezkeen hara eta hona azken momentuko urduritasunak jota. Izan ere, *Onddo* gazte asanbladari egokitu zitzaion atzokoan Santio jaietako suziria jaurtiketa. Jaiak lehertzeko bost minutu falta zirenean, plazar kolorea hartu zuela ikus zitezkeen; koadriletako jendea bertaratu zen, kamiseta moratuak, horiak... ikus zitezkeen.

Hamabietako kanpaiak jotzen hasi bezain laster, txalaparta doinuak entzun ziren eta Gazte Asanbladako ikurra den onddoa udaletxetik plazara jaisten hasi ziren. Bitarte horretan, gazte taldeko kide batak pregoia irakurri zuen; bertan, besteak beste, gune propioaren beharra aldarrikatu zuten beste hainbat kezka aipatzearekin batera: «Onddoari bizia emateko indarra izan zutenak eta jaietan falta direnak eta horien senideak» ere ekarri zituzten gogora. Amaitzeko, eta «parrandak etenik ez izateko» gonbitea luzatu ondoren, «gora Santio jaiak» oihuarekin batera, jaurti zuten suziria.



Hauerek ez ezik, helduek ere primeran pasatu zuten buruhandien kontura. O.ESKITXABEL



Berdura plazan egin zuten herri bazkaria; trikitilariak abesti ugari jo zituzten bazkarian zehar. O.ESKITXABEL

Bustitzeko gogoz

Algarak eta oihuak entzun zitezkeen suziria bota bezain pronto; txanpain botilak hustutzen hasi ziren herriarrak, baina ez edateko asmoz; inguruko guztiak bustitzeko asmoz, baik. Gazte taldeko kideek jaurtitako urez betetako puxikak ere baliagarri izan ziren freskatzeko garaian.

Buruhandiek hartu zuten ondoren plaza girotzeko lana; eta haurrak ez ezik, gaztetxo eta ez hain gaztetxoek ere korrika saio ugari egin zituzten. Han denek jasotzen zuten; eta, nola, gainera.

Buruhandiek atsedean hartu bezain laster, jendea plazatik urruntzen hasi zen; baina azkar bizitu zen berriro ere Berdura plazan egin baitzuten herri bazkaria; egiten zuen berorekin freskatu egin nahi eta edateko aitzakiarik behintzat ez zitzaien falta.

Bazkarian 300 lagun inguru bildu ziren; Arkaitz eta Aintzane trikitilariak ere han izan ziren berotuta zegoen giroa are gehiago berotzeko asmoz.

Arratsaldean, pilota partidak jokatu ziren plazan eta gauean, berriz, danbor hotsa nagusitu zen herriko kaleetan zehar.

Nekin taldearen saioa izan zen eguneko azken emanaldia.

**NATURHOUSE**  
Dietetika eta nutrizioa  
Jai zoriotsuak opa dizkizue  
Nagusia, 43 • Billabona • Tel.: 943 69 43 31

Taberna  
**Rainbow**  
Ondo pasa santioak!  
Nagusia 46 • Tel.: 943 69 35 16

**EROSKI city**  
Festak ondo pasa!  
Tel.: 943 69 43 09  
Berria, 28 • Villabona

Festa zoriotsuak pasa!  
BERRIA, 17  
BILLABONA  
943 69 20 14  
Faxa: 943 69 45 96  
mug. 609 80 48 86  
jokiniraola@telefonica.net

**UXOA edaritegia**  
pintxoak - ogitartekoak - plater konbinatuak eta  
GIRO BIKAINA!  
Kale Berria, 56 • Billabona

**EIZMENDI ARMATEGIA KIROLDENDA**  
Kirol gaiak konpontzeko lantegia  
Aukera handia eskopeta eta kartuxotan  
MERKEALDIETAN GAUDE  
Berria, 19 • Billabona  
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044

**Foto NAIARA**  
Ondo pasa santioak!  
Nagusia, 9 • BILLABONA  
Tel.: 943 69 64 82

**MAXOLA TABERNA**  
ERRIBEA, 4  
Tel.: 943 69 05 91

**IRV ALDETTA EDARITEGIA**  
Kale Berria, 15  
Tel.: 943 69 09 41

**JOE BAR**  
Altxin, 1  
Tif.: 943 69 31 54

**SANTIO JAIETAN ERE ZUEKIN IZANGO GARA!!**

**OKINDEGLA kixubi**  
Gozotegia eta kafetegia  
Festak ondo pasa!  
Erribea, 3 20150 BILLABONA 943 69 33 75

Janari Denda  
**Pepi**  
Ondo pasa Santiotan!  
Berria, 56  
20150 BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38  
Etxeko Barazki eta Fruituak

ARCAITZ MORABIDE ▶ KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

# «Lehiaketako sariaren zati handi bat festetan gastatuko dut»

«Abstraktua dela ezin esan daiteke, baina anbiguotasuna bilatu dut», esan du Morabidek kartelaren inguruan

IÑIGO ASENSIO

Villabonako kartel lehiaketa irabazi du, gai hauetan aditua ez bada ere. Otsaila aldera, ideia ona izan zezakeela pentsatu eta lanean jarri zen. Injeneritza Tekniko Industrialak ikasten ari da, mekanika espezialitatean, eta horrez gain, igeriketa ikastaroak eta sorosle lanak egiten ditu Villabonako kiroldegian. Elkarrizketa egiteko deitzean harrituta agertu da Morabide, honelako entzutea ez baitzuen espero. Egindako lanari buruz soilasean aritu da 20 urteko billabonar gaztea Htzarekin.

**Zer dela-eta animatu zinen lehiaketa honetan parte hartzea?**

Urtero ikusten nuen kartel lehiaketa hau, baina inoiz ez nuen parte hartzea planteatu.

Otsailean argazkiak ikusten ari nintzela ideia bat bururatu zitzaidan eta aurrera egitea erabaki nuen; nire anaiak ere lagundu dit lanean.

**Galdetzea badago, nola egin zenuen kartela?**

Festetako zenbait argazki nituen, arkupeak eta jendea ikusten ziren, baina ez zen nahiko jende kartela betetzeko. Horri konponbidea ematea ez zen zaila izan; jendea moztu eta itsatsi egin genuen argazkiak. Hutsunea bere horretan ez zen arazoa, baina efektuak erabiltzean, kalea beltzu egiten zen eta ez zen oso estetikoak. Abstraktua dela ezin esan daiteke agian, baina anbiguotasuna bilatu dut; errealismo eza. Horretarako programa informatiko xumeak erabili ditugu, efektu eta koloreekin jokatu, nahi genuen emaitza lortu arte.



I. ASENSIO

**Zailtasunik topatu al duzu lana egiterakoan?**

Norberak nahi duena egiten duenean, zailtasunik agertzea ez da ohikoa. Dena den, testua ulertzeko, aukeraturako kolorekin kontu handia eduki behar izan nuen, bestela, ulertu arren, ez zen testua gehiegi nabaritzen.

**Gustuko emaitza lortu, eta lehiaketara?**

Bai, proba dezente egin nituen, ez baita berdina ordenagailuko pantailan eta paperean ikusten dena. Gustuko egin nuen emaitza aurkeztu nuen.

**Ba al zenuen esperientziarik honelakoetan?**

Lehiaketa batera aurkezten naizen lehen aldia da. Etxean, argazkiak moldatzen-eta ibilitakoa naiz, baina betiere, etxerako argazkiekin.

**Hortaz, estreinaldian garaile; zer egingo duzu sariarekin?**

Beno, 300 euro dira, jaiak gainean dira, beraz, zati handi bat festetan gastatuko dut.

**Jaien gaiari helduz, nola bizi behar behar dituzu zuk jaiak?**

Kiroldegia itxi dute, beraz, ez daukat lan egin beharrik. Lagunekin aterako naiz, Koadri-

len Eguna beti izaten da polita; atera beharko da.

**Behartuta diozula dirudi...**

Ez, ez. Izugarriko gogoa daukat. Herriko jaiak beti dira herriko jaiak eta esan dudana bezala. Koadrilen Egunean beti izaten da sekulako giroa.

**Zer da jaietan gustuko duzuna?**

Beno, Koadrilen Egunaz gain, futboleko finalen giro handia izaten da. Gainera, kontzertuetan ere jendetza biltzen da. Aurten S.A. datorrela-eta jende asko Villabonara etorriko dela dirudi.

**BRONTXILLO**  
Harategia Arraindegia  
Tel.: 943696823  
Santio, 4 Villabona  
Gora Santio Jaiak!

**Castelas-Verites**  
TXIMINIAK  
Tel.: 943691400-faxa: 943693845  
Berria, 10 • Villabona  
e-mail: castelasverites@castelasverites.com  
www.castelasverites.com

**GOIATZ** MARGOAK OROKORREAN  
INDUSTRIALA - FATXADAK - HARRIA GARBITZEKO...  
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA  
Tel.: 943 69 31 01 • faxa: 943 69 31 01 • mug.: 609 14 37 13

**SANHATSA** DIETETIKA ZENTRUA  
BELARDENDA  
Errota, 5 • Tel.: 943 69 42 79  
Kale Nagusia, 28 • Tel.: 943 69 40 63 • 20150 Billabona

**ARANDRA HARATEGIA**  
Jai zoriontsuak!  
Kale Berria, 13 • Billabona  
Tel.: 943 69 08 03

**EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE**  
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA  
• Erresuma Batuko Ileapandegiko III. Maila  
• Nazioarteko Pivot-Point Diploma  
• Gune Homologatua  
• Lan Bertsia, lanpostu indize handia  
• Goizeko eta arratsaldeko txandak  
San Francisco 39, behea **GUREKIN, TOLOSA**  
Tel. 943 654361 **ZUZENEAN LANERA**  
www.centrosbeta.com

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.  
Kale Berria, 46 behe • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

GAZTETXEA ▶

# Onddo, herriko jaietan ere presente

Hilaren 28an egun osorako jai antolatuta dute, baina festarako ez ezik, lanerako asmoa ere badute gazteek

MAIDER EIZMENDI

**E**z da sortzeko egin duen lehen saialdia izan; oraingoan, baina, indarrez berpizteko kemena duela erakutsi du Onddo gazte asanbladak.

Duela 5 urte inguru egin zituen bere lehen pausoak Onddok, baina ahalegin hark huts egin ostean—ez da duela zazpi hilabete arte izan— Villabonako gazteek gazte asanblada indartsu eta dinamiko bat sortzeko grina dutela erakutsi dute.

Gabonen inguruan ekin zioten Udalak utzitako egoitza atontzeari eta gazte asanblada berriz ere indartzeko asmoari. «Lauzprobost gazte bildu ginen eta koadrila ezberdinekin hitz egiten hasi ginen berriz ere gazte asanblada berpizteko asmoz», gogoratu du Eneko Bergara Onddo gazte asanbladako kideak. Hilabete luzeetan lan mardula egin ostean, iragan maiatzaren 15ean Onddo gazte asanblada jendaurrean auzteku zen. Jendetsua izan zen Onddoren aurkezpen ekitaldia, horrela gogoratzen du Eneko Bergarak. «Izugarriko giroa izan zen jai horretan, gazte asanbladako eta kanpoko jende ugari bertaratu zen gaztetxera».

Orduraz gero ugari izan dira, hamasei eta hogeita hiru urte bitarteko berrogeita hamarren bat lagun batzen dituen talde honek antolatu dituen ekintza eta ikuskizunak. Orain, billabo-

natarren jaietan ere, beren lanaz herritar guztiak goza dezaten nahi izan du.

Txupinazioa izan da Onddok herriko jaien baitan egin duen lehen ekintza. Ez da bakarria, ordea, hilaren 28an, jaien programazioa hutsik dagoela eta makina bat ikuskizun eta ekintza antolatu baitituzte egun osoan zehar: diana, kros alternatiboa, eta, «nola ez, poteoa» izango dira, besteak beste, billabonatarrek Onddo gazte asanbladaren eskutik ikusteko, eta batez ere, parte hartzeko izango dituzten ekitaldiak. Gauerako berriz, hiru musika talde ekarriko dituzte: Afonia, Ezein eta Izeba Pilarren lobak. Egun berean gazte asanbladak gogoan izango ditu herriko preso eta iheslariak ere.

## Lanerako premia

Villabonako jaietan, ordea, festarako ez ezik, lanerako asmoa ere badute, txosnan atera asmo duten diruak datozen hila-beteetan antolatu nahi dituzten ekintzak ordaintzeko balioko baitie. Gainerakoan, Villabonako jaietako futbol txapelketa antolatu eta gidatzea eta rock kontzertuetara SA taldea ekartzeko eskaera egitea izan dira hasi berri diren jaietako begira Onddo gazte asanbladak egin dituen ekarpenak.

Helburua, Eneko Bergarak adierazi duenez, jai giroa indartzeko eta, batez ere, koadrila ezberdinetako jendearen par-



Gazte asanbladako kideak maiatzaren 15ean egin zuten aurkezpen ekitaldian. GARAIZ AZKUE

te-hartzea herriko jaietan bul-tzatzea da. «Ez soilik parran-dan, egunean zehar egiten di-ro ekintzetan koadrila ezber-dinetako jendeak parte har-dezan nahi dugun», dio Berga-rak.

Azken bi hilabeteetan han-dia izan da arlo honetan egin duten lana eta gazte asanblada jaioberri honek ez du aurre-rantzean ere besoak tolestuta geratzeko asmorik. Bergarak dioenez, gai orokorrak lantze-

ko bilerekin gain, ekologia, ani-mazioa eta Gaztetxearen ingu-ruko gaia jorratzeko hiru talde bereizitu dituzte. Gutxi gorabe-hera hamar lagunez osatutako talde hauetako bakoitzak bere arloa jorratzen du. «Ingurume-na lantzen duen taldea, esate-rako, buru-belarri aritu da errauste plantaren gaiarekin lanean», azaldu du.

Jendeak gazte asanbladari eginiko harrerari dagokionez, Bergarak oso kontent daudela

aitortu du. «Antolatzen ditugun ekitaldietara jende asko bil-tzen da eta hori oso pozgarria da», gogoratu du. Adibidez, ira-gan astean presoen omenez antolatu zituzten ekintzek jen-dearen aldetik izaniko harrera ona izan zen.

Etorkizunerako, orain bezala jarraitzea eta ekintzak erosota-zen gehiagorekin egin ahal izateko lokal handiago bat lortzea dira jai berri den gazte asan-blada honen erronkak.

**Inmobiliaria**  
Santio Jai zoriontsuak!  
**ETXESAGASTI**  
Kale Nagusia, 13 • VILLABONA  
Tel.: 943 69 68 56 • mug.: 616 93 17 88

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!  
**Amane**  
Erniobea, 5  
BILLABONA  
Tel.: 943 69 68 11

**ILEAPAINDEGIA**  
Aurrez ordua eskatu  
**Félix**  
Ilearentzako tratamendu bereziak  
Festak ondo pasa! Berria, 21 • Villabona  
Ettxekoa: 943 69 39 52 • Denda: 943 69 18 24

ondo pasa jaietan!  
**Harategia MIKEL**  
Tel.: 943 69 07 64  
Ettxeko tel.: 943 65 22 55  
Arroa auzoa, 12 behea • Billabona

**HITZA**, eskualdeko plaza  
661 678 818  
Toki aproposa iragartzeko

**chaplin Pub**  
• Terraza ederra  
• kopak ...  
**Ondo pasa!**  
Errota, 6  
Tel.: 943 69 02 66

• eguneko menua  
• pintxoak  
• plater konbinatuak  
• bokatak eta giro onak!  
**VIKER**  
Tel.: 943 69 40 01  
Erniobea, 19  
Billabona

**MAITE**  
JANARIDENDA  
Ondo pasa jaietan!  
kale nagusia, 11  
Villabona  
Tel.: 943691822

**EKO-TOLOSA**  
FRUTATEGIAK  
www.ekotolosa.com  
ondo pasa santioak!  
Tel.: 943 69 30 47  
Nagusia, 3 • Villabona

**ERLOJUDENDA - BITXITEGIA**  
**ONDOPASA JAIETAN!**  
Tel.: 943 69 13 90  
Nagusia, 26 • Villabona

**CLAUDIO**  
**HARATEGIA**  
Festa zoriontsuak opa dizkizue!  
Kale Berria, 60  
VILLABONA  
Tel.: 943 69 29 45  
Ettxekoa: 943 69 06 71

**Ondo pasa!!** PINTXOAK  
BOKATAK  
PLATER KONBINATUAK  
Kale berria, 20 • 20150 BILLABONA • TEL.: 943 69 11 78

**ERREZIL**  
BASTIDA PENTSUEN BANATZAILA  
GARAIO HAZIAK ETA  
SORO-BARATZETAKO SENDAGIAK  
Arroa auzoa, 20 • VILLABONA  
Tel.: 943 69 15 48



OINKARI DANTZA TALDEAREN EMANALDIA ▶

# Oinkarik, oinak arin

Villabonako dantza taldeak emanaldia eskainiko du gaur Arroan 22:30ean

## IRATXE ETXEBESTE

Apirilekoaren aldean ez da arras ezberdina izango, baina dantza emanaldietako bakoitza ikuskizun bat denez; bakarra, nolabait esatearren, Oinkarikoek gaur eskainiko dituzten koreografiak aurretik ikusita dituztenak ere ez dira gauean Arroara joateaz damu izango. Jaialdi bikaina prestatu dute, izan ere, Villabonako dantza taldekoek. Dantzatuko dituzten asko orain arte sekula egin gabekoak dira, eta beste dantza batzuk errepikatuz egongo dituzte, baina, kontuak kontu, jaialdia ikusleentzako gustuko izan dadin egindako ahalegin berezia aitortu egin behar zaie dantzari gazteei.

Musika da, bereziki, dantza taldekoek oraingorako indartu nahi izan dutena. Apirilean bost musikari izan zituzten zuzeneko lanetan lagun, eta hamahiru izango dituzte gaur. «Garrantzia eman nahi diogu musikari; zuzeneko musikak, eta landua bada are gehiago, asko janzen duelako dantza», dio Oinkari dantza taldeko arduradun Eneko Arteaga billabonatarrek: «Apustu handia egin dugu alde horretatik».

Oinkariko 35 gazte, Udaberriko 30 ume ariko dira taula gainean; guztira, 70 bat dantzari. Txikienek bost dantza eskainiko dituzte: *Alpargata*, *Lizartzako Ipurdi-dantza*, *Axun Klakla*, *Katuen testamentua* eta *Mari Andresan korotza*; Udaberriko mutilek *Ezpata-dantza* egingo



Oinkariko gazteek emanaldia eskainiko dute gaur Arroa auzoan. AIURRI



Ikastaroetako hiru haur taldek ere hartuko dute parte jaialdian. AIURRI

dute, eta gainerako guztiak Oinkariko gazteek dantzatuko dituzte; saioari hasiera eman-go dion *Agurra* barne.

Astean bitan entseatu dute urte osoan jaialdiko koreografiak prestatzeko: Edu Muruamendiarazzen aginduetara astetero, eta Eneko Artegak berak zuzenduta, ostiraletan; bi orduz jardun dute egun bakoitzean. Hala ere, azken asteetan gehitu egin dute entsegu kopurua, eta ia eguneroko aritu dira

dantzari gazteak Ikastolan duten lokalean oinak astintzen.

12 eta 22 urte bitarteko 29 neskek eta 13 eta 26 urte bitarteko 6 mutilek osatzen dute egun Oinkari taldea. 1975ean sortu zenetik jende andana pasatu da bertatik, eta azken urteetan beharera zihoalako, Muruamendiarazzen eskolak hartzen hasi ziren, dantza taldea indartze aldera. Dantzari berengarrik gidatuta emango duten bigarren emanaldia izango

da gaurkoa, eta Oinkarikoek diote aurrekoaren «jarraipena» izango dela. Gainera, aste-oro-astero dantza ikastaroetara joaten diren hiru haur taldek eskainiko dute ikuskizuna. Dokoia izango da sarrera.

Gisa honetako emanaldiak antolatzea, baina, ez da hain erraza, eta Oinkarikoek beste talde batzuren laguntza izan dute horretarako. «Tolosako Udaberri, Ibarra Lurur eta Añorgako Arkaitz dantza taldeei eskerrak eman nahi dizkiegu, emandako laguntzagatik». Bestalde, Ramon Garciak egindako gona berriak estreinatuko dituzte gauean. Ordu eta laurden inguru iraungo du jaialdiak, eta antolatzaileek adierazi dute eguraldi txarra eginez gero Arroan ez, eta Olanderra kiroldegian izango dela, ordu berean hasita. Proiektiorik gabe, baina Eneko Gorostidi preso billabonatarri eta Oinkari dantza taldeko kideari eskainiko diote jaialdia gaur ere bere kideek.

## Bestelako ekitaldiak ere bai

Gaur gaueko emanaldia ez ezik, bestelako ekitaldiak ere antolatu dituzte Oinkarikoek Santio jaietarako. Arratsaldean Sokadantza egongo dute, eta ostegunean haur jolasak prestatzeaz arduratuko dira. Aitzitik, Dantzari Txiki eguna Villabonako egongo dute gaur, eta Oinkariko haurrek ez dute bertan parte hartuko, haien «emanaldia egun berean delako eta Villabonako Udala arazoa konpontzeko bidean ez delako gehiegi inplikatu».

## EMANALDIA ▶

Hamahiru musikari ariko dira zuzenean gaur Arroa auzoan egongo duten jaialdian. Hamaika instrumentuz lagunduta joko dituzte Oinkariko kideek dantzatuko dituzten piezak. Hamabost dantza eta bi kantu eskainiko dituzte guztira musikariek eta dantzariak gaurko jaialdian.

## MUSIKARIAK

**Estanis Iriarte eta Tomas Arruti.** Txalapartariak.  
**Garikoitz Llobregat.** Xirula eta txistua.  
**Xanet Arozena.** Kitarra.  
**Marcos Juaristi.** Saxofoia.  
**Jon Zaldúa.** Batería.  
**Iñaki Letamendia.** Perkusioa.  
**Iñaki Zelarain.** Eskusoinua.  
**Nerea Barriola.** Ahotsa.  
**Maitane Lertxundi.** Bibolina.  
**Josune Arretxe.** Alboka.  
**Marcos Landa.** Aho soinua.  
**Maria Jesus Arratibel.** Zeharkako flauta eta txistua.

## DANTZAK

- ▶ Ezpata-dantza.
- ▶ Maite.
- ▶ Zortzikoa.
- ▶ Villabonako marxa.
- ▶ Euskara plazara.
- ▶ Axun-klakla.
- ▶ Katuen testamentua.
- ▶ Mari Andresan korotza.
- ▶ Banakoa.
- ▶ Fandangoa.
- ▶ Alpagata.
- ▶ Xuletino.
- ▶ Lizartzako Ipurdi-dantza.
- ▶ Arin-arina.
- ▶ Errenkan.

## KANTUAK

- ▶ Xarmangarria.
- ▶ Xurian xuri.

**OGI-GOXO**  
Okindegi eta Gozotegi  
**Ondo pasa!**  
kale nagusia, 26  
Tel. 943 69 32 94 BILLABONA

**SARASOLA ZUBELDIA**  
elkartasunarekin, e. l. b.  
Muntza eta langintza dituztenak  
**altxa besoak eta ekin dantzari!**  
Tel. 943 69 19 25  
Altx. 69 64 38 49  
Kale Berria, 11  
VILLABONA

**XABIER ARDOTEGIA**  
ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERRAK • LIKOREAK, etab.  
**Etzerainoko Zerbitzua** Jai zorientsuak opa dizkizuet!!  
Santio kalea, 4  
VILLABONA • Tel. 943 69 13 24

Prentsa  
Faxa  
Liburuak  
Papeleria  
Fotokopiak  
**KAZETARIA CA**  
PERIODISTA  
Nagusia, 21 - Villabona - Tel./faxa: 943 69 14 66

**RELU**  
ileapaindegia-estetika  
Errota 1 beheka esk. - Villabona  
Tel.: 943 69 62 92

**Irukide**  
Inmobiliaria  
**Ondo pasa Jaietan!**  
Ernio-bea kalea, 2  
20150 Villabona  
Tel.: 943 69 36 82  
Faxa.: 943 69 36 82  
Emaila: irukide@euskalnet.net  
www.euskalnet.net/irukide

**AMASA-VILLABONAKO UDALA**  
Herritar guztiei jai zorientsuak opa dizkie.  
Errebote plaza z/g - VILLABONA • Tel.: 943 69 21 00 / Fax.: 943 69 33 76  
emaila: villabona@udal.gipuzkoa.net

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

# Hazpandarrak 75. urtez herriko jaietan

Hazparneko jokariak ez ezik, duela 25 urte jokatu zuten jokariak eta herriko pilotariak ere omenduko dituzte



Jaietan duela 25 urte jokatu zuten jokariak ere omenaldia jasoko dute. HITZA



Duela 75 urte billabonatarrek hazpandarren aurka jokatutako partidaren ostean, Amasan. HITZA

MAIDER EIZMENDI

**D**uela 75 urte lehen aldiz egin zuten moduan, aurtan ere urteroko zitari huts egin gabe Santio jaietan izango dira Hazparneko errebotek jokariak. Villabona ezagun egin duen kirola, beraz, presente egongo da jaietan. Kirol hau maite dutenek hilaren 31n izango dute billabonatarrek eta hazpandarrak nor baino nor ikusteko aukera.

1865. urtean eraiki zen Errebote plazan aurretik ere partida mordoak jokatu bazen ere, 1929. urtean jokatu zen partidak hark zeresan handia izan zuela aitortu du Joxean Jauregi Behar-Zanako kideak, urte hartan jokatu baitzuen Villabonako errebote taldeak lehen aldiz ofizialki Iparraldeko talde baten aurka.

Errebotearen muina hitz gutxitan azaltzea zaila da, joko konplexua eta osagai anitzekoa baita. «Errebotea plazako joko da, bost bosten aurka jokatzen da. Jokalari guztiek elkarri begira jokatzen dute. Frontisetik hamabi metrora kokatzen den sate marraren alde batean kokatzen den taldeak, pilota marraren beste aldera botatzea du helburu; beste taldeak pilota frontisean sartzea helburu duen bitartean», dio Jauregik.

Villabonan tradizio handia izan duen pilota joko da errebotea. Egun, bertan eta Zubietan soilik daude joku honetan aritzeko lekuak eta taldeak Gipuzkoa mailan. Zuberora, Lapurdi eta Nafarroa Beherean tradizio handiko kirola da, ordea, hori dela eta, herri garrantzitsu guztietan dago errebotean jokatzen plaza.

## Gero eta baxuago

Billabonatar ugari jolastu izan du joku honetan, Jauregik adierazi duenez, egun arrakasta handirik ez duen joko den arren. «Pentsa, garai batean Villabonako errebote txapelketa antolatzen genuen, herriko talde ezberdinak elkarren artean lehiatzeko. Egun, berriz, justu talde bat osatzeko adina jende

## OMENDUAK ▶

**Villabona.** Duela 25 urte herriko jaietan jokatu zutenak: Azurmendi, Santamaria, Esnaola, Iturbe eta Urrestarazu. Ramon Quintana. Miguel Lertxundi. Pako Etxenike. Jesus Mari Begiristain. Pello Zelarain. Blas Garmendia. Patxi Ordozgoiti.

## Hazparne.

Hazparneko errebote taldea .

dugu», azaldu du Jauregik. Helduen mailan ez ezik, gazteen mailan ere oso gazte gutxi jokatzen duela aitortu du Jauregik. Bere esanetan, laguntzaileen gabeziak eta ikusleen eskasiak ere kinka larriarri jarri du kirol honen etorkizuna.

Jaien azken egunean 1929. urtean jokatu zen partida hura omentzeko, eta batez ere, hazpandarrek urteetan erakutsi duten leialtasuna eskertzeko omenaldi bat antolatu du Behar-Zana taldeak. «Oso harreman estua izan dugu Hazparneko pilota taldearekin eta hori eskertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu», aditzera eman du Behar-Zanako kideak. Egun horretan, duela 25 urte herriko jaietan errebotean jokatu zuten jokariak ere omenduko dira: Azurmendi, Santamaria, Esnaola, Iturbe eta Urrestarazu, hain justu ere. Omenaldietan hasita, Behar-Zanako kideak ez dituzte kirol honetan nabarmendu diren billabonatarrek ahaztu nahi izan. Hori dela eta, egun berean Ramon Quintana, Miguel Lertxundi, Pako Etxenike, Jesus Mari Begiristain eta Pello Zelarain omenduko dituzte, bai eta Blas Garmendia kantaria eta Patxi Ordozgoiti, duela 74 urte herriko jaietako partidaren parte hartu zuten jokalaria ere.

Partida eta omenaldiaren ostean, guztiek Amasako Aranzabi jatetxean egingo dute bazkaria, duela 75 urte egin zuten moduan.

# www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**eztabaidako  
galdera berria:**

Donostian Aritzeta inguruan jarriko dute azkenean erraustegia. Zer iruditzen zaizu



ARRISKUTSUA DA? ▶ EZ DU KALTERIK  
EGINGO? ▶ BEHAR DA? ▶ BESTERIK? ▶

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Igeriketa bilera giro beroan egin da

43 haur eta umek parte hartu dute, ikusle mordoskaren aurrean

JAIONE ASTIBIA

Atzo arratsalde beru zuen, hamazazpigarren aldiz, Haur Igeriketaren Bileran; Leitzako igerilekuan eta giro ezin hobean burutu ere.

Eguraldi aparta lagun, uretan ibiltzeko giro bikaina baitzegoen eguzkiaren indarraren indarrez, han bildu zirenek, adin guztietako umeak igeri ikusteko aukera izan zuten. 43 umek eman zuten izena, eta bi sailetan banatu zituzten: 10 urtez behokoak batean eta 11-12 urtekoak bestean, eta egin be-

harreko ibilbideari zegokionez ere, 25 eta 50 metroko igerialdiak izan zituzten, hurrenez hurren. Bost kale zeuden prest erakustaldirako, epaile-begiraleak ere hantxe zirelarik.

Ekitaldiari ttikienekin eman zitzaion hasiera, hiruna urteko neska-mutikoekin; eta gero urtez urteko murgildu ziren uretan, neskato eta mutikokoak talde desberdinetan ateraz. Ttikienek txilibituaren soinua entzun eta gurasoen animo oihuetara, begiak erne egin zuten igeri. Kozkorxeagoek, berriz, beren trebeziak erakutsiz, joan-eto-

rria zeinek azkarrago egin aritu ziren, besada luze askoak emanez eta arnasa mugitu ateraino saiaturik.

Ondoren jostaketaren txanda iritsi zen eta uretan hainbat joko desberdin burutu zituzten, denak nahaste eta parte hartu nahi izan zuen guztia irekita, noski.

Ariketa guztiekin bukatu ondoren, parte-hartzaile guztiei, han bildu ziren 150 bat lagun txaloeraz gain, opariak ere banatzekotan ziren ekitaldi hori antolatu zuten Erletako guraso elkarteko kideak.



Uretan sartzeko aitzaki polita zen jokoetan parte hartzea. J. ASTIBIA

Antolatzaileek Haur Igeriketaren XVII. Bileran haur antolatu zuten herriko harmaik babesleri eskerrak eman zizkieten «horien babe-

sik gabe, ekitaldi hau egiterik ez baitago», zioten eta hurrengo urterako ere, berriz asmo honekin jarraituko dutela adierazi zuten.

TOLOSA ▶ PALETA

# Nazabalek eta Lontxok jantzi zuten txapela

Zazpi urte eta gero, Urdanpilletari eta Zabaletari txapelak tituluak kendu diete

OLAIA ESKITXABEL

Herenegun arratsaldean jokatu zuten Berazubiko pilotalekuan Tolosa CF k antolatzen duen Paleta Txapelketako finala. Bi bikote norgehiagokan: Nazabal eta Lontxo eta Maiza anaiak. Partida borrokatua izango zela espero zen arren, nahiko erraz joan zen Nazabalentzat eta Lontxoarentzat. 30-17 irabazi zuten: «Uste baino errazago irabazi genuen; Maiza anaiak ez zuten beren maila eman», azaldu du Xabier Nazabalek, irabazleetak batek. Izan ere, Maiza anaiak batera finalerdiko eta finaleko partida soilik jokatu zuten, anaietako baten bikotekideak jokatu ezin zuelako: «Horrek finaleko partidan eragingo zuen», dio Nazabalek.

Pozik agertu dira paleta jo-

kalariak txapelak tituluak eskuratzearekin: «Azken zazpi urteetan irabazle izan diren Urdanpilletari eta Zabaletari tituluak kentzea lortu dugu». Ez da lan erraza izan, ordea. Finalerdiko partida bikote horren aurka jokatu zuten Nazabalek eta Lontxok: «Oso partida gogorra izan zen; kostata irabazi genuen».

**Motza baina gogorra**

Tolosa CFk antolatutako Paleta Txapelketan bikote gisa aritu diren lehenengo urtea izan da:



Nazabal eta Lontxo, paleta txapelketako irabazleak. INIGO ASENSIO

«Palan ez ezik, kanpoan ere lagunak gara eta hori onerako izaten da txapelketa jokatzerakoan», adierazi du Xabier Nazabalek.

Txapelketaren inguruan, «lehenengo partidak zailak izaten dira, pilotalekua estua, irekia,

bote txarrekoa... delako, hala ere, azken aste honetan lau partida jokatu ditugu hiru egunetan eta horrek abilezia hartzeko balio izan digu», dio Txapelketaren iraupena bi astekoa da eta horrek «finalerdia edo finalera iritsiz gero, denbora

gutxian partida asko jokatzeko suposatzen du», esan du Nazabalek. Hala ere, «denak jokatu nahi ditugu partida horiek guztiak txapela lortzetik gertuago egotea suposatzen duelako».

Hurrengo urteko txapelketan ere bikote gisa parte hartzeko asmoa agertu dute, «txapela defendatu beharko dugu» esanez. Bitartean, Lizartzako pilotalekuan lagunekin palan jokatzeko ohiturari eutsiko dio bikoteak, horrek, berriro ere, txapela jantzeko lagunduko dietelakoan.

**Memorial Txapelketa, orain**

Tolosa CFren Paleta Txapelketa bukatuta, Memorial Txapelketari emango diote hasiera bihar. Tolosa CFk antolatzen du txapelketa hori ere, eta lehenengo partidua 19:30ean hasiko da bihar: Otermin-Garces eta Renobales-Aldazabal bikoteek elkarren kontra jardungo dute Berazubiko pilotalekuan. Hurrenak asteartetik aurrera izango dira, baina 19:30ean hasi ordez arratsaldeko zazpietan hasita izango dira.

**iragarki laburrak ▶**

**ESKERTZA ▶**  

**MARIA KORO ROTETA MAIZ** andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zirenen guztioi.  
 Anoeta, 2004ko uztailaren 25a

**Haurtzaindegia**, eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak. Eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaitez. Informazioa dohain. 943 650193.  
**Laborategiko** teknikari, laguntzaileak. Plazak libreak udaleke, Aldundia eta Eusko Jaurilaritzarako. Informazioa dohain 943 650193.  
**Suhiltzaileak**. Sarrerari berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara. Soldata,

gutxi gorabehera: 1.500 euro. Informazioa dohain. 943 650193.  
**Administrariak**. Laguntzaileak nahiz teknikariak. Udalekxetan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza Eskola Graduak. Informazioa dohain 943 650193.  
**Ingurumena**. Langile, teknikari eta agenteak udaleke, Foru Aldundi eta Eusko Jaurilaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943650193..

**Basozaina**. 17 postu libre eskaintza lanpostuan egin ezazu lan. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa dohain. 943 650193.  
**Gizarte laguntzaileak**. Hurrengo deialdiak Gipuzkoako udaleke ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa dohain. 943 650193.  
**Sukaldari** laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurilaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943 650193.


**Promozioa eta eraikuntzak**  
 Bizkai kalea, 2 - behea  
 20400 TOLOSA  
 Faxa: 943 69 71 98  
 Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 25a, igande ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Alegia, Altea, Alzo, Ametzeta, Ansoa, Balaran, Berasteg, Edoain, Hernalde, Ibarra, Inza, Larnai, Leizaburu, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurritza.  
Kultura Saila

Eusko Jaurlaritzaren  
Kultura Saila

GAURKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

23

hotzera

17

goizez

arratsaldez

BIHARKO  
EGURALDIA

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Abuztuaren 1ean Arantzazuko erromesaldira joateko izen-ematea zabalik.  
**Altoz.** Hilaren 30ean San Inazio jaietako egitarauaren baitan antolatutako zikro jaterako txartelak salgai Arandia jatebean.  
**Amezketza.** EHNA egiteko aukera izango da gaur 12:00etatik 14:00etara udalbatzar aretoan.  
**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuen elkarteak Olitera (Nafarroa) irteera antolatu nahi du. Joan nahi duenak izena eman dezake, doan.  
**Ibarra.** Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.  
**Tolosa.** Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du: 16-25 urte arteko graduaturik gabeko gazteentzat; mailako prestakuntza teknikoak; graduatua lortzeko klaseak; lan mundurako irtenbidea. 943 67 61 61.

### ERAKUSKETAK

**Altoz.** Altzoko erraldoiari buruzko erakusketak:  
**Altzoko Erraldoia.** *Altoz ezaguna egin duen gizona* haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago telefono honetan: 943 65 24 13.  
**Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradako argazkien

# Herriaren itxura zainduz

**TOLOSA ▶** Egun hauetan Tolosako semaforo guztiak margotzen ari dira, lehenago hasitako lan bati amaiera emanez; herriaren itxurak eskertuko du



Margolariak, amaroako semaforo batean lanean. I.ASENSIO

### IÑIGO ASENSIO

Udarekin eguzkia datorrela diote. Eguzkia, hondartzara joateko gogoia eta baita oporretarako aukera ere. Baina jakin badakigu, uda garaia errepide lanetarako garaia dela; dirudienez, aproposena. Egia da, bestalde, inork ez dakiela zergatik trafikoa gehien dagoen garaian egiten diren lan hauek, eguraldia aproposa delako, edota auskalo zer dela eta, egun hauetan errepide lanetan ari diren langileak ikustea ez da harrizkekoa.

Era berean, Tolosa ere udarekin batera heldu da lan hauek egiteko garaia. Ez dira izugarriko aldaketak nabaritu, baina herriaren itxuraketa lana ere beharrezkoa da eta semaforoak margotzeari ekin

diote egun hauetan; udan izan behar, noski. Dena den, lanaren bigarren fasea besterik ez da egun hauetan ikusten ari garena. Hilaren hasieran ziur bat baino gehiago larrituta joan zela etxera, Tolosari ukitu artistikoa eman nahian semaforoak berde argi bitxi batez margotu behar zituztela pentsatuz, tratamendu gisa kolore hori izan baitzuten zenbait egunetan. Egunotan lana amaituko dute, eta hori horrela, betiko berde kolorea berreskuratuko dute gure herriko semaforoek, askoren lasaitasunerako. Hurrengoa zein izango den? Ezin jakin daiteke, baina lehen aipatu moduan, uda, errepide lan garaia da, nonbait, eta ziur egongo dela konpondu beharrekorik. Gehiegi, aukeran? Babiliteke.

erakusketak kultur etxean dago hilaren bukaera arte.

### JAIK

#### Villabona (Santio jaiak).

▶ **Gaur.** 09:00etan sokamuturra plazan Tolosako dultzaineroek alaituta; 09:30ean diana-kalejira Villabonako Santio txistulari tadearekin; 10:00etan kalejira Tolosako dultzaineroekin; ordu berean kros herrikoa;

11:00etan dantzari-bikien kalejira auzoz auzo; 12:00etan meza nagusia parrokian; 12:30ean kalejira Faltesko musika bandarekin; 13:00etan Faltesko musika bandaren kontzertua plazan; ordu berean, Udal korporazioak urteroko bisita ingo du Santiago egoitzara; 17:00etan dantzari bikien emanaldia plazan; 18:00etan sokadantza plazan; 19:30etik 21:30era dantzaldia Eklipse taldearekin plazan;

22:30ean, Villabonako Oinkari dantza taldearen emanaldia Arroan; 00:00etan dantzaldia Eklipse taldearekin.

▶ **Bihar.** 09:00etan Sokamuturra plazan Tolosako dultzaineroek alaituta; 10:30etik 13:30era jolasparkea haurrentzat plazan; 16:00etan mus txapelketa herrikoia Berdura plazan; 17:00etatik 19:00etara jolasparkea plazan; 19:00etan karaokea haurrentzat plazan; ordu

berean, pilota partidua Olaederra kiroldegiko frontoian; 19:30ean sagardo eta txekor dastaketa Txermingo ikastolan; 22:00etan Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia Gurea aretoan; 23:00etan erromeria Tapia eta Leturia taldearekin.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Spiderman II.* Gaur eta bihar, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan.

## ZORION AGURRAK ▶

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

Mesedez,  
ekarri argazkia bi egun  
lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara  
(Araba etorbidea, 5  
behea - Tolosa)

**Km 0 hemen dago**

**VOLVO S40 1.9 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 115 CV  
**19.800 €** (3.295.000 PZTA)  
PREZIOA: **23.820 €** (3.960.000 PZTA)

**VOLVO V40 1.9 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 115 CV  
**20.975 €** (3.490.000 PZTA)  
PREZIOA: **25.195 €** (4.190.000 PZTA)

**LR DEFENDER 90 TD5**  
Enpresan erabilia = 122 CV  
**23.500 €** (3.910.000 PZTA)  
PREZIOA: **29.940 €** (4.980.000 PZTA)

**VOLVO S60 2.4 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 130 CV  
**26.900 €** (4.475.000 PZTA)  
PREZIOA: **30.100 €** (5.010.000 PZTA)

**FINANTZIAKETA BEREZIA 120 HILABETERA • 5 urteko bermea**

**Eusko Jest** Donostia-Hernani errep. • Tel. 943 33 18 16 • HERNANI (Galarreta pilotalekuaren eta Opel Auto Hernaniren ondoan)  
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara • 04/08/07 arte balio duen eskaintza